

NAFARROAKO LURRALDE ESTRATEGIA BERRIKUSTEA.

PARTE HARTZEKO PROZESUA.

NLE-REN ZIRRIBORROAREN AURKEZPENA

Izarbeibar-Novenera eta Erdialdeko Lurralde mahaia

Lekua: Kulturgunea, Tafalla.

Eguna: maiatzaren 10a

Ordua: 18:00-20:30.

SAIOAREN EGITURA

- 1.- Hasiera eta ongietorria.
- 2.- Parte hartzeko prozesuaren azalpena.
- 3.- NLEren zirriborria aurkeztea.
- 4.- Galderak eta ekarpenak.

Valdizarbe- Novenera eta Erdialdeko lurralde-saioaren helburua Nafarroako Lurralde Estrategiaren zirriborria aurkeztea eta horri buruzko galderak eta ekarpenak jasotzea zen.

Garrantzitsua da adieraztea zirriborriaren inguruko parte-hartze prozesu hau prozesu osoaren fase bat dela, eta informatzeko eta parte hartzeko beste une batzuk ere daudela. Fase honetan, zirriborria da xedea, eta jasotzen diren ekarpenetan oinarrituta aldaketa ezberdinak jasan ditzake.

Garrantzitsua da adieraztea fase honetan parte hartzeko aldia ekainaren 25era arte luzatu zela, NLEren berrikuspenean parte hartzeko webgunearen bidez (<https://participa.navarra.es/processes/revision-estrategia-territorial-navarra?locale=eu>). Webgune horretan, beharrezko dokumentazioa deskarga daiteke (NLEren zirriborria eta laburpen exekutiboa) eta beharrezkotzat jotzen diren ekarpenak egin daitezke.

Erredakzio Taldeak saioan erabilitako materialak txosten honi erantsi zaizkio.

Jarraian, NLEren zirriborroa aurkeztu ondoren bilkuran egindako ekarpen nagusien laburpena azalduko da. Parte-hartzaileei animatu zitzaien beren ekarpenak idatziz web-orriaren bidez bidaltzera, behar bezala kontuan har daitezten.

GALDERA ETA EKARPEN NAGUSIAK

Jarraian, saioan egindako galdera eta ekarpen nagusien laburpena azalduko da. Ez dira ipini pertsonen izenak, pribatutasuna babesteko arrazoiengatik.

- Interesa agertu da NLEren lan guztia departamentuen arteko elkarlanean egiten ari ote den jakiteko, hori funtsezkoa baita tresna eraginkorra izan dadin. NLE Nafarroako Gobernuako departamentuekin partekatzea garrantzitsua da guztiona izan dadin.
- Zalantzak azaldu dira dokumentuak izango duen izaera juridikoagatik. Gogorarazten da gaur egun LAPEk badutela legezko gaitasuna.
- Zalantza handiak azaldu dira honetaz: gaur egun plan orokorra egiten ari diren udalak, zer egoeratan gelditzen dira?
- Zalantza gehiago adierazi dira NLEren arau-mailari buruz. Jakin behar da ea lege batzuk aldatzeko gaitasuna izango duen (adibidez, 3R legearena).
- Esan da paisaiaren balioa gehiago argitu behar dela, baita NLEk nola landuko duen ere. Nafarroako herriak eta landa-mundua definitzen dituen zerbait da paisaia. Eta gertatzen ari dena da berriztagarriek nabarmen aldatzen dutela landa-izaera hori eta paisaia, neurri handi batean.
- NLEren zirriborroak Nafarroako baldintzetan oinarritutako gidalerro sozioekonomikoak jasotzearen garrantzian sakondu da. Iruñeak eta Iruñerriak nahi dute dena, eta joera gero eta handiagoa da. Gidalerro

sozioekonomiko horien arabera planifikatzen ez bada, ez du zentzurik.

- Adierazi da landa-eremua errespetatzea herrietara joan behar duten baliabideak lehenestea dela. Irizpide orokorrak ezin dira izan landa-eremuekiko kaltegarriak. Badirudi onura globalek beti eragin negatiboa dutela landa-eremuan. Zerbait egin beharko da hori beti ez gertatzeko edo ezinezkoa izango da despopulazioaren aurka borrokatzea.

Lurraldea egituratzeko oso garrantzitsuak diren proiektu asko ez dira amaitzen, eta kontraesan handiak daude (adibidez: Tafalla-Zangoza saihebidia).

- Udalerriekiko errespetu bat egotea garrantzitsua dela adierazi da. NLE tresna estrategikoa izan arren, herrien egoeren berezitasunak jaso beharko lituzke. Ezin dira irizpide berak erabili Iruñerako eta herri txikietarako. Horren ondorioz, desoreka gero eta handiagoa da.

- Nabarmendu da espektatiba asko sortzen direla NLE bezalako tresnekin, baina errealitateak erakusten du nola doan dena. Adibidez, garraioa funtsezkoa da, baina AHTak lurralde osoa desegituratuko du (Iruñea izan ezik), Madrilera iristeko minutu batzuk irabazteko. Badira funtsezko beste alderdi batzuk ere, hala nola hezkuntza, ez zaie jaramonik egiten biztanleriaren ongizaterako hain garrantzitsua den eskaera ezberdinei. Antzeko zerbait gertatzen da Interneteko konektagarritasunarekin eta Vianako Printzeak jartzen dituen mugekin. Hori guztia landa-eremuaren aurka doa, haren egoera ez delako kontuan hartzen eta mugak jartzen baitie zonalde hauei.

- Aipatu da parte-hartze prozesuetan mantentzen den diskurtsoa bata dela eta herrien errealitatea bestea. Landa-eremuei dagokienez, dena oso berandu dabil; adibidez, eskualdeen gaia onartuta dago, baina oraindik ez da errealitate bat. Partaidetza-prozesu ugari egin dira, eta ez da ikusi planifikatu nahi denaren eragina. Garrantzitsua da azpimarratzea udalerrri txikietako ordezkariak gero eta zailagoa dutela; izan ere, egoera zaila da, ez dute babes politikorik atzean

(independenteak direnak) eta gero eta baliabide gutxiago dituzte gainerako udalerriekin lehiatzeko. Landa-mundurako, zerbitzuak funtsezkoak dira, eta hori konpondu egin behar da, baina ez da konpontzen.

- Nabarmendu da garrantzitsua dela 1.000 biztanletik beherako herrietan zerbitzuak izateko irizpideak udalerrri handietarako irizpide berak ez izatea. Adibidez, 0-3 urteko ikastetxe baterako gutxieneko ikasle kopurua eskatzea ezin da bera izan herri txiki batentzat edo handi batentzat. Egokitu egin behar da. Garrantzitsua da, halaber, herri txikien arteko zerbitzu mankomunatuak lantzea.
- Zalantzak azaldu dira NLE hain justu 2023an hauteskundeak izan aurretik nola geratuko den.

Ekarpenen zatia amaitu ondoren, Erredakzio Taldeak azpimarratu du garrantzitsua dela ekarpenak bidaltzea, nahi den zentzuan eta norainokoa, adierazitako webgunearen bidez eta ekainaren 25era arteko epearekin. Unea garrantzitsua da, zirriborroa aldatzeko eta aberasteko modukoa delako.